

ESAERAK ETNOGRAFIA IKUSPUNTUTIK

Durango, 1996-XII-07

Juan Manuel Etxebarria Ayesta

Arrastion entzuleok!

“Min bako arrana ugerra(k)tx(y)an” dino Zeberioko esakera zahar batek, baina nire arranak badaragoio eragon be eta ganoso gure euskal mundu zahararen edertasunak etorkizunera bideratzen, bildursartu barik, “eztan bedarra berez igertu” esakerari eutsiz.

Etnografia ikuspunturik goratuko diot euskal esaeren munduari eta horretarako, Bizkaiko Etniker taldekide lez, On Jose Migel Barandiaran, gure maixua aipatu behar, besteak beste, bere interdisziplinari biltze lanetan, esaerek euren leku apartekoa dutelako.

I. ATLAS ETNOGRAFIKOAREN PROPOSAMENA

On Jose Migel Barandiaran, gure maixua, aipatukeran, berak, 1968an Zaragozako “I Congreso Nacional de Artes y Costumbres Populares”eko “Bosquejo de un Atlas Etnográfico del Pueblo Vasco” hitzaldian, eta, 1969an “V Jornadas de Estudios Folklóricos Aragoneses”eko “Criterios generales para una investigación etnográfica de los Pueblos Pirenaicos” berbaldian jorratutako puntu programatiko batzuk aipatuko ditut.

1. Gure Etnografia lanetan bildutako datuak, gure herriaren tradizioetik hartuak dira gugana heldu diren neurrian. Gaur eguneko kultura ez da urteetan zehar gure herri zaharretik etorri zaiguna bakarrik, ezpabere, lau haizeetatik gugana heldu eta onartutakoa ere.

2. Gure ikerketariko asko deskripzio estatikoak dira, ia morfologikoak, kontestotik atereak. Baina, gauza bat da datu biltzea beste barik eta beste bat “izate kulturala”ren berri ematen diguna. Beraz, herri-bilketa giza-kontestutik isolatzea eta objektibatzeak, errealitatetik urrunduko gaitu.

3. Irudi ikustetik bakarrik ezin dugu gure kulturaren berri sakona jakin, gizakiak bere medioan bizi duena zehatz jasota baino. Bizi ez dena nekez ulertuko da etnologian.

4. Gauza edo jasoera baten deskripzioak ez du estatikoak izan behar. Herri baten, gizartean, elementu bakoitzak fisikoki eta izakeraz jokatzen du gi-

zatasunean, bizitzaren joanean-joanean, norbere eta gizartearen kultura garatzen.

5. Gure bilketa lanean, jaso den materiala zenbateraino bizi den adierazi behar da batetik, eta herrian edo herriz kanpo noraino hedaturik dagoen bestetik.

6. Euskal Herrian, oraindik, leku zabal edo txiki asko dago bilketa-lana egin gabe. Eginbehar urgentea dugu. Batetik lekukoak zahartuz doazelako eta bestetik mundu modernoari begirako aldaketa arin bat bizi dugulako.

7. Lurralde bakoitzeko herri-jakituriadun lekukoaren norainoko akulturazio prozesuaren deskribapena egiteko daukagu neurri handi baten.

8. Esandako guztiagatik, urgentea eta behar baharrezkoa dugu, bilketa proiektu hau, metodo egoki batez aurrera eroatea Euskal Herri luze zabalean. Talde-laneko monografia zehatz hauekin, Euskal Herriaren bizitze kulturala jasoko dugu.

On Jose Migel Barandiaranek proposatu zuen Atlas Kultural hau aurrera eroateko, Etniker taldeak sortu zituen. 1969an, Departamento de Arqueología de la Universidad de Navarra. 1972an, Gipuzkoan, Sociedad de Ciencias Aranzadi de San Sebastián. 1973a, Bizkaian, Departamento de Etnografía del instituto Labayru de Bilbao. 1974an, Araban, Seminario Alavés de Etnografía. 1986an, Iparraldean, Association Lauburu de Bayonne.

II. ESTRATEGIA ETNOGRAFIKOA

Etniker taldeen ikerketa bidea, puntu hauetan laburtuko genuke, beti ere, On Jose Migelen Barandiaranen erizpidea jarraituz.

1. Ikerlari bakoitzak, norbere herrian egingo du azterketa. Alde batetik barrurik hara ezagutzen duelako bere herria eta bestetik herritarrenganako harremanetarako bidea egina daukalako.

2. Kuestionario berdinez eta metodologia berberaz ezagutaraziko da herri baten bizikera eta bere kultura.

3. Ikerlari bakoitzak, tokian tokiko hizkuntza-erregistroa ezagutuko du. Era honetara, zehaztasunez jokatuko du transkripzio lanetan.

4. Bilketa ez da morfologia hutsa izango, izakera bakoitzaren funtzioa eta kontesto kulturala adieraziko da.

5. Datu etnografikoak, lekukoaren memoria heltzen denerainokoak izango dira. Ez dira pasatutakoak bakarrik izango. Noraino bizi eta onartu diren ere adieraziko da. Gainera, bizikera berriak ere jasoko dira, noraino berriak zaharra aldatu duen esanez kultura aldaketa prozesuan.

6. Etniker talde-lanak kontrastatu egingo dira lurraldeka lehenengo eta urteroko talde guztien bileran.

III. KUESTIONARIO EDO GALDEBIDEA

Lehenago ere esan denez, Etniker taldekideok kuestionario berbera darabilgu gida bezala gure kanpo-lanetako bilketa egikeran. Baldintza hau behar beharrezkoa da osotasuneko bilketa lan bat egiteko.

Horretarako, On Jose Migel Barandiaranek "Guia para una encuesta etnográfica" sortu zuen eta bertan, 850 galdera agertzen dira, bederatzi kapitulu nagusitan banatuz:

0. Auzo eta herrien datu geografikoak.
1. Sail domestikoa: etxea, elikadura, janskera, familia eta harremanak...
2. Sail domestikuko usadioak: tresneria, garbikusia, jolasak, gaisoak, erligioa, pasaje erritoak (jaiotza, bateoa, ezkongaiaroa, ezkontza, heriotzea...).
3. Ekintza saila: nekazaritza, artzaintza.
4. Ekintza saila: Itsas tresnak eta arrantza.
5. Ekintza saila: nekazal-explotazioa.
6. Ekintza saila: Artesania eta gainetikoak.
7. Lurralde saila: Herria, auzunea. Lege eta ohitura araudia.
8. Kulturizazioa: Etxea, eskola, siniskerak, jaiak, urteoroak, mitoak eta gainetikoak.
9. Biografia-etnografikoak: Berriemailearen datuak, formazioa, bizitze neurria, harremanak, statusa, kultura aldaketa, gainetiko bizikerak...

Kuestionario hau, gida komun bezala darabilgula esan dut, absoluto kutsua albo batera utzita. Izan ere, tokian tokiko elkarrizketak egin ahala, galdera berriak etortzen zaizkizu gogora eta hori ere jaso egiten da eta gero kontrastatu.

IV. INKESTA

On Jose Migel Barandiaranen inkestaren helburua hauxe litzateke: Gure herriaren izakera bereizten duten arau-sistema, estruktura eta funtzioak aztertzea.

Eginbehar honetan, gure herriarenganako obserbazioa eta informazioa lirateke biltze ardatz nagusienetariakoak.

a) Obserbatze hau ikuspuntu bitatik egindakoa izango da: alde batetik, morfologikoa eta bestetik funtzionala.

Ikerketa morfologikoak objektua bere elementuetan analizatuko du euren sintesia eginaz. Esate baterako, etxe bat, bere plano eta orokorrean aztertuko bada ere, bere zatiak ere egingo dira osotasun horretara heltzeko.

Azterketa funtzionalak ostera, konportamentu, helburu eta esangurak edukiko ditu aztergai bezala. Funtzioa, zatiturik azter daiteke baina gero espazio-denporan estrukturatu behar da, gizakiaren urteetan zeharko humanizazio eta guzti.

Gure azterketak, ba, objektu materialetik funtzio fisikora joan behar du lehenengo eta hortik esangura edo bizikera kulturalera.

b) Informazioak obserbazioa osatu behar du. Inkestalariak gutxienez aurreko mendeko datuen berri jakin behar du, (zaharragoak baditu hobe), EBO-KAZIO itxurazko bat lortzeko.

Berriemaileak, ahal dela, natiboak izan behar du. Bere aurrekoak bertakoak izan badira hobe kontesto diakroniko on bat egiteko.

V. ESAERAK

Etnografiako ikuspuntu orokorra eman ondoren, esaeren munduan sartuko gara eta esandako guztiaren barruan kokatu.

On Jose Migel Barandiaranek, bere “Guia para una encuesta etnográfica”-ko “Grupo doméstico” deritzon atalean hauxe dino: *Cada lugar, accidente geográfico, objeto y hecho que se describa, debe ir acompañado del nombre y de los dichos populares que al mismo se refieren, procurando que la transcripción se haga con la mayor exactitud.*

Esaerak ez dira bizitzatik apartekoak, bizitzarenak dira, espazio-denporan mamituak eta belaunaldi bakoitzak onartuak bizitzaren joanean joaneango legean.

Bide bat zelangoa den jakiteko, norbera bertatik ibilita egotealakerik ez dago. Ni, On Jose Migel Barandiaranek sortutako ETNIKER taldekidea nauzue eta bere inkesta Zeberio neure herrian egiten nabil hogeitau urte luzeotan.

Inkestaren barruko Esaera mundua biltzeko, nik neuk egin dut neure bidea. Zein eta hauxe: Nire neure gurasoak ditut berriemaile. Esaeretarako batez ere neure ama.

Hasieran, inkesta egin ahala, esaeren galdera egiten hasi nintzen baina emaitza urritxua sugertatu zitzaidan.

Baina nire neure bidea zabaldu nahian, bitargi bat ikusi nuen esaeren ebokazioa lortze bidean: “Bizitza non esaera han”. Eta orduan esan nion neure amari: Kuaderno bat ekarri dizut, urte barruko egun, jai, ospakizun, ekintza, bizikera, ohitura eta abar guztiei buruzko esaerak bertan idazteko.

Asteburuetan, Zeberrioko baserrira joaten nintzen eta naizenetan, han neukan eta daukat nire ama kuadernoa zabalik esaerak edo eta antzekoak erakutsi nahian.

Nire lana, esaerok fitxatu eta aztertzea da. Dagoeneko, 500 etik pasatu gara eta urteetan ibili arren, oraindino ez da agortu esaera-iturria.

Beraz, arrazoia du On Jose Migel Barandiaranek, ni neu ez banenbil barrurik harako bilketa egiten, pentsatu ere ez horrelako altxorrik aurkitzerik. Esaera batek askotan, beste bat dakar eta nik neuk ere gurasoengandiko esaera asko bizi dituk eta hori oinarrizkoa da ebokazioa lortzeko.

VI. BILKETA METODOA

Ahorik hara zein magnetofono edo bideorik harako esaera bat, ahal denik eta zehatzen idatzi behar da iturri zuzena adierazteko.

Aurgorazkoa izan arren, nik neuk hiru erataria idazten ditut esaerok: Alde batetik transkripzio fonologikoan, bestetik, fonetikoan eta azkenik literario arautuan. (Lehenengo bere euskalkian eta gero nahi bada batuan).

Gehiago oraindik; esaera bat, bere kontestuan sartu behar da eta horrela ere argitasun gehiago behar bada, eman egin behar da, sarri askotan, bizitzaren joanetorrian zaharkiturik geratu delako edo eta beste edozein arrazoigatik. Horrez gainera, eta etorkizun luzeari begira, ondo legoke beste hizkuntza batera itzultzea ere.

VII. ESAERAREN NONDIK NORAKOA - NEURE BIDEA

Jarraian datozen esaera edo eta antzerako guztiak, neure amagandik jaso ditut urteetan zehar.

Lehentxoago ere esan dut baina galdeketa bakoitzean esaera bidiru baino ez nituenez lortzen, azkenean, koadernu sistemara jo behar izan dut. Eta gaur bat, bihar bi, hona hemen bostehunetik gora, urteko bizitzatik atereak, oraingoz alfabeto-ordenaz eskeiniatz.

Dena den eta argitasun bidean, neure amari bildutako esaera bat edo besteri jarraipena egingo diot, Zeberiotik kanpo, behar bada, ezagutu ere ez direlako

egingo. Nik haragokoari eskeintzen diodanaren antzerakoa neugana baletor, pozik baino ere pozago hartuko nuke altxor eder hori neurea aberasteko.

Adibide batzuk hartuz, hona hemen horietariko esaera bat edo beste bere inguru eta guzti:

1. “árdurak lagundukotzu” Lit. ardurak lagunduko deutsu. Bat. Ardurak lagunduko dizu.

Esaera honek bere historia du. Nire amamak kontatzen zigun bera txikia zela sarri entzuten ziela esaera hau bere aurrekoei. Lehenengoz entzun zuenean hauxe gertatu zitzaion: Orandino umea zela, uretan joateko esan zion bere amak. Garai artan, ura errekatik ekarri behar izaten zen, kantin bi lepoan, beste bat eskuan eta sarritan erradea buruan dela. Nire amamak, hartu zituen tresnok eta errekarantz abiatzerakoan esan zion bere amari: ama, buruko erradea nok altzatuko dit ba burura? Ardurak lagunduko deutsu- erantzun zion eta joan zen nasai. Errekara heldu, tresnok urez bete eta han zegoen ezarrita ardurari itxaroten. Itxaron eta itxaron, gogait eginda zegoenez, hartu erradea erdi hutsik, imini buruan zelanbeist eta etxera bueltatu zen. Etxera allegatzean badinotso amari ernegusartu eta guzti: ama, ez dit ba beorrek esan árdurak lagunduko didala? Bai- erantzun zion bere amak- joan zaizu árdura laguntzera. Horduxean ulertu zuen esaera horren esangura.

2. “Saldaingo txakurrena pasau yako”. Lit. Saldaingo txakurrarena pasatu jako. Bat. Saldaingo txakurrarena pasatu zaio.

Eta zer gertatu zitzaion Saldaingo txakurrari? Ba, hauxe: Saldain, Zebe-rioko elbarrengo auzune bat da eta hango txakurren bat, seguru, eguerdiko go-sean, bere etxeko bazkariari itxaroten egon barik, Uriondoko auzunera joatea pentsatu zuen, behin haraz gero, han tertziozago bazkaiteko. Joan, joan zen baina Uriondora allegatu zenerako, han denak bazkalduta. Orduan, etxerako bideari eragon zion eta Saldainera heldu zenerako, berekoak ere bazkalduta. Egun horretan bazkalduta barik lotu zen eta hortik esaera hau.

3. “kontu erratuena batzean”. Lit. kontu erratuarena batzean. Bat. kontu erratuarena batzen.

Behin baten, gizonen bat ei zebilen eskean etxerik etxe eta zerena batzen zuen itauntzen ziotenean, hauxe erantzuten ei zuen: “Ba hara, kontu erratuarena batzen nabil. Orain dela urte batzuk, zenbat urte biziko nintzen kontuak atera nituen eta urte bakoitzerako neure haziendetarik urteko honenbesteko bat jaten hasi nintzen. Alosoko bizimodua neukan, egia esateko. Urteak joan urteak etorri, haziendak amaitu zitzaizkidan baina bizitzako urteak ez, horregatik nabil eskean kontu erratuarena batzean”.

4. “Estan bedarra beres igertu” Lit. ez dan bedarra berez igartu. Bat. Ez den bedarra berez ihartu.

Herritarren artean, era askotako kritikak egiten dira eta sarri askotan fundamentubakoak, enbidia edo txartoikusigureak eraginda. Berbabidetariko bat nesken ernaritzea izaten da. Sarri askotan, neska bat mutil batekin ikusiz batera, berbabideak hasten dira: bateko ernari egongo dena, besteko eztaikit zer etab. Honelako kritiken aurrean, ondogureko edozeinek erantzuten duen esaera hau xe da: “egia bada, denporak agertuko dau edurra mendian eta ezpabere, eztan bedarra berez igartuko da”.

5. “mendie artu”. Lit. mendia hartu. Bat. mendia hartu.

Esaera hau ganaduentzat erabilten da batez ere baina pertsonetara ere pasatu da. Artzainak ganaduentzat barruti bila ibiltzen dira, solorik solo edo mendirik mendi. Udagoienerantz, denporaldi handiak egiten dituzte ganaduek mendian eta pastoreak egunero joaten ibili beharrean, noizbehinka baino ez dira joaten. Horretarako ganaduak lekuingurune jakinean euki behar izaten dira. Horregatik, aldez aurretik, mendia hartu edo egokitu egin behar dute urrunegi aldatu ez ditezten. Mendia hartzea, EGOKITZEA da, pastu-mendiari gustua hartzea.

Pertsonetan beste hainbeste gertatzen da, baina ez pastuagatik, ezkontzagatik baino. Lehenago, batenbat ezkontzen bazan baserri batetik bestera, “mendia hartu” behar izaten zuen ondo izateko, “mendia hartu” ezik, beleak beti bere haitzera!

ERANSKINA

I. ESAERA, ESAMOLDE, HITZ BEREZI EDO ANTZERAKOEN ZERRENDA

Ohar bezala, zerrenda honekin ez dut ezelako sailkapenik egin, entzundako moduan alfabetoz jarri baino. Zerrenda amaitu gabe honek beste era bateko tratamendua behar du baina kasu honetan “korpus”eko zati bat bezala baino ez da agertzen. Lehenago ere aipatu dut, baina hauxe duzue nik Leonor Ayestari (neure amari) egindako eskaritik jaso ahal izan dudana eta jasoten ari naizena. Beraz, korpus osoaren sailkapenari dagokionez, Zeberioko euskera, Uriondo eta Undurrakoa zehatzago izanik.

“Abaderik esta yausten gastaña ganetik.

Abogaduek esbaieri inderra.

Adinon yaok egunero.

Agindue bat, emona bi, aginduegas kontentu ixin ai.

Agindu bayakon esauen ingo.

Agindute ine baño kokorioagoa.

Aginetan sarratuta nao.

Agogan berotu barik botaten yosak agokadak.

Ago biguneko artxoak ama bien esneak edan.
 Ago bixerrakas dao.
 Ago itxien esta aulirik sartuten.
 Agoko ogie baño gurago dau.
 Agoko ogie emongo lauke.
 Agotik urtenak agotik sartu.
 Akordatzakoan etorri yatak.
 Aldekoakas bakarrik eskondu sen.
 Ai, Jangoikoa, bat eta bera naikoa.
 Aitek in bauen be.
 Aldienak artu dau.
 Alla bako okeranak dariola.
 Altzaren ondoan altza ernetan dok.
 Amasulo utze da.
 Amaka bider esan yako baie.
 Amarrak, erantetortu mamarrak.
 Andafuerasko yantzie.
 An dalakoan emen.
 Andiago ingo estala umekerietan.
 Andiagoape entzun, Ikusiko... yusek!
 Andie dopa! (dok ba).
 Andragine dok gixon ori.
 Andramari Martikotik sortzire kukue espadator, onrak in.
 Andra in de.
 Andratara yakik.
 Andrea aratona, sarri faltauko da gausona.
 Andreari mosurikosoenak: begien, agoan eta usoan.
 Angeru beta ori (bat da).
 Ango ixikerea urek emoten yok.
 Ankartekoa bekokien balauko andreak, iñor enamorau bes.
 Anka yokoa dauko emetik.
 Aragoan be txakurrek ortosik.
 Arantzabako lora gitxi dao.
 Ardien erruek, bildotzak pagau.
 Ardurak lagundukotzu.
 Aren gibelak etxaukiek arrik.
 Arimea apartaurik, kortako txarrie dirudi.
 Arimeak urtengotzu.
 Arkiloka suster barik.
 Armin daoenak miñe sorrotz.
 Arrana(k)tx(y)o dotzies.
 Arrautza bi esin in abi beten.
 Arrautza mokoletik urtenda dao.
 Arriek estauko begirik.

Arri te orma dabil.
 Arteak artu esinik.
 Artu te artu mundue akabau.
 Artu temon mundue aurrera.
 Artzea baño sabalagoa.
 Artzea les dao.
 Asagariek seinbet eta maldasiño geao, bustena arroago.
 Asiek ine dirudi, inek urregorrie.
 Asiterako moduko gixona.
 Asko da ba!
 Askon ardiek otzoatxan (otzoak yan).
 Aspireak ekarriko yok etzera.
 Aspitik-aspitik esta gausona.
 Aspitikoa gañetu yako ortuarieri.
 Astakirten mandasain bet.
 Astegun burusurien kopea?
 Astoa atzerantza baño temosoagoa.
 Astoak esan leiok mandoari: kenai orti belarriandi ori!
 Asto askok lasto asko.
 Astue espada gero ori!
 Asune baño berdeago.
 Asur baltza yatzu ori.
 Aubea moskortute ta sagie osoan esin lei.
 Au da umean bereinkitue.
 Au dok sasoia ta bearrik es.
 Auriek, nagie yoten dau lelengo.
 Aurkitu dau neurriko sapatea.
 Aurrekoripe etxok ikusten.
 Aurten dana aryoa.
 Ausoko baiek, beti esne geao.
 Auxe dok kaka buruti bera itea.
 Atzamar puntetan asie da ori.
 Asbegiek (atz-begiek) susen dakaselata...
 Atzemardo egin.
 Atze ona dauko ta.
 Atzoa ta aburea asarratu dire, arkalenatire ta aituko dire.
 Bakean satos?
 Bake santue in dok.
 Bakotxak, bere opileri putz.
 Baspiek erantau.
 Bastarrakustietxan.
 Baten in da sarri kontau.
 Bat esan da bera bes.
 Beargin onantzat erreminta txarrik es.

Bearrak, bearra erain.
 Bearrestana beresbe agartuko da.
 Beatzakas arrie joten beti.
 Begi biekas ikusten dau bere kutune.
 Begiek urten inixtabik, inbidis yosite.
 Begiepaño gurago dau.
 Begiepota bearrean es yoan.
 Begi gustiek estaudie egun baten negar iten.
 Begipixuen saldu ganadue.
 Bekanekoa bota.
 Belea baltzago esta ingo.
 Beleak, beti bere atxera.
 Bepuruek astun.
 Beragas bixi bear estauena ondo dao.
 Bere andreagas bixi bea dau.
 Bereatarabil ori.
 Bere burue seosertzatauko.
 Bere fraketan enaunke on gure.
 Bere narruen enaunke on gure.
 Bereskorik estao iñon.
 Beroana kendu bea yako.
 Beste mutilok agartu dire.
 Beti allego bille.
 Betiko eskara ta.
 Beti labankerietan.
 Beti bastarrak enderdetan.
 Bideapetean dabil.
 Bidertzeko aratxak eta tabernako krಿದೆak, sarri sirrie.
 Biderdi in.
 Bietatik esite egon.
 Bijon daiela!
 Biosbakoa andreantzat.
 Biosberatute dabil.
 Bisi alargun dao.
 Bisiek, bisi lan, ile lurretzan.
 Bisipixuen saldu ganadue.
 Bitzetan bixi de.
 Burdiepe untau eskero irrintzarik es.
 Burlesar ibili.
 Buru barrie in.
 Burus belarri in.
 Burutu esinik ibili.
 Dabilela nondikure.
 Dabilenari pasetan yako ori.

Damuek urdaiek balitu, estau bear txarrie ilterik.
Dana bearrean ibili.
Dana be esta esa.
Danantzat estao beti feri txarrik.
Denporeak erakutziko dau edurre mendien.
Diruc, satza!
Domekako bearra astelenera esta allegetan.
Drogeak argi urtengo dau.
Drogosoa da galanta ori.
Edanbako ordie.
Ederra ta galanta batera estao adosein lekuten.
Ederra ta galanta basan be, ondo galdurita.
Edertasune lelengo umeataro.
Edur urtea, urte ona.
Egalak sabal dabis gausonerako.
Egiek, gusurreri yarrite etxon.
Egunek egune ur dauko.
Egun argis apartau oba batzukes.
Egunes amesetan.
Egunes kako ta kako, gaubes luse.
Egur eskarmantadue sugin ona.
Eguskie ta aurie batera, sorginek orrastuten.
Ekine baragarrie da, esine baragarriagoa.
Elexeak estau ori aspian sapalduko.
Elexastikue yatzu ori.
Emen serue t'an serue, esta gausa segurue.
Entzun de gor, ikusi te itzu.
Epebako pirrie.
Eperdibete leku ingo dau orrek.
Eperdien gatza dauko.
Eperdien mun iok oin.
Erdiek eta beste ainbeste.
Erdis erdisean itxi.
Era onari txera ona.
Errekadu iten yoateko barik eriotzean eske agintako obea.
Errementarien etzean sotza burrunntzi.
Errementarie untzegin begi gorrie.
Errenak, sala barrien be koxo.
Errentorea arri labanean bixi de.
Esa eskuen daukok.
Esanak esanda be.
Esan be itea.
Esan txarrekoa.
Esatea neke.

Esaten diren gustiek estire mesak.
 Es aukie da ona esiteko.
 Esebesa begireko da ona.
 Eser es eta saratea.
 Esiek iru urte, txakurrek iru esi aldi, saldiek iru txakurraldi, gixonak iru saldi aldi.
 Eskola sasi in.
 Eskondu arte larri, gero baragarri.
 Eskonparriten, galbaian be ure, gero erradan bes.
 Eskontzea estok malamasustea, sirrie(k)tx(y) aukona deabruen untzea.
 Eskontzea eta odolostea bero beroan.
 Eskurdunena: Aurten eskur asko yaok. Nok esan doa? ta naukure.
 Esnea ganas daoenean esku bete gatz surtera beieri errapea sein galdu.
 Estakisule? Dakisun aldea erretan basaunke «ai» ingo saunke.
 Esta luserorako.
 Estan bedarra beres igertuten da.
 Estao asbolarik errama iger bakorik.
 Esta parte onekoa.
 Estaukon les balauko, jaunekobea.
 Etortekoa bada etorriko da.
 Etorten badaki ba.
 Etzea esta barkue.
 Etzeatarrenagas pasau.
 Etzerako ingo dau orrek.
 Etzerako moduko gixona da.
 Etze utze gerra utze.
 Eun duket iteko trasea bea da auki.
 Frakapetean dabil gixajoa.
 Fraka(k)p(b)uruti yasten ibili de.
 Fraketan estu dabil.
 Galarteko babea.
 Galbarra oker dauka gausonerako.
 Ganeko gixona dan.
 Gariek: Nau nok bedarrik onera Artoak: ni ñaoan lekuen be etxaokoserik.
 Garrastealango mutile.
 Gasbako koadrillea.
 Gasteak, buruen be esteak.
 Gasteritxoanda.
 Gaubeko bearrak egunes agartu.
 Gatzetako be estu in gaur.
 Gerixaripes.
 Gixonagas da txakurregas es fiau, ormara iten daurie txixe.
 Gixonan anbisiñoa andrea eperdien akabetan da.
 Gixonari sentzune potroatara bajatu eskero estao sereginik.

Gixon in de.
 Gixon musturgorrie, edallea seguru.
 Gixonak il in bea dau ona ixiteko.
 Gogo esarri.
 Goien serue ta bean lurre lotu de.
 Gorbaïen begie atereape yoko lauke gurera.
 Gordetako leku onean auki osu ba.
 Goruetan ardazbidea libre atera san.
 Gois gorri arasti iturri.
 Gosea ona ser yar auki eskero
 Gosunea etorri yatak.
 Gurasoak umeari dana dotzo sor.
 Gureak in dau.
 Gure danerako orpoetan arrik es.
 Gure diruek arratosak.
 Gusur bi batera esin bota.
 Gusurre aginepañõ aurrerago.
 Gusurre biderdikoa da.
 Gusurre dariola dabil.
 Il-bisiko dao.
 Ilean txal batarak frabikatik.
 Ile bistuko lauke salda onek.
 Ile lurrek selan yan alan aistu.
 Ilerikures da bixiteko gauses.
 Iluntze gorri ongarrri.
 In banau te... olangoak, goseak il ausen Bergaran.
 Inbidie sarnea balitz i beti aska.
 Inek in bakoari etxon.
 Infernuko deabruei be kandela biges in bea yako argi.
 Inikidadeak kontetakoa esta.
 Iñõn boltzako diruegas es kontau.
 Iñõr es eta gerixea.
 Iñõr esotute-n estaoela dao.
 Iñõrriena: udan txirtxir da neguen eskean amak esan dau iñõr estaoela etzean.
 Iperrandie sartu dau eta bator lanbroa.
 Irikiten estauen lapikoa sein do(k)p(b)a?
 Itaurren ondo gitxitaki.
 Iturrien beti txixelarri.
 Itzesoa be eskontzeak lotu i auen.
 Itzesoko aurie, urrineko egur igerra ta pobrean erresoia beti sobra munduen.
 Itzuen garrotadea letxe.
 Itzueri argi iteko ona yaok ori.

Itzulumurdiak andrari.
 Ixorrabari saos ala?
 Ixorrai!
 Jaunekobea.
 Jaungoikoak, beste leku beteti lagunduko dau.
 Jaungoikoakure dauena ixin daitela.
 Kaka larri barik in beako yostek.
 Kaka mokordoa emen itxite yon da.
 Kakapirri utze da.
 Kakitute dao.
 Kakokoa badauku te
 Kamiñeruen ixerdie agineko minerako ona.
 Kandelario egunean, eguskie baño otzoa ardi artean obe.
 Kanpoan larrosa, etzean arantzak eta sorrotzak.
 Kanpo ederra atzean gerra.
 Kaskie dariola dabil.
 Kaskondute dao umea.
 Katue alanbran baño estuago.
 Katue baño salagoa da.
 Katuek surtera adi, aurie seguru.
 Katu-katu inde etorri de.
 Keak galantagana yoten dau.
 Koipetzu beta ori.
 Kokorio ori alango ori!
 Kontzelau be esin de.
 Kontu erratuentzat batzean dabil.
 Korta bearrak.
 Kuarreak anegerdi esin artu.
 Labesue berogi auki eskero, ogiek erregi atera.
 Lagunabarra topau dau eskontako.
 Lanbrotik aurie nekes iten dau.
 Lapilotxeak, bete orduen ganas.
 Laratzu baltzak besbas baleki.
 Laratzu baltzak esotuko dau.
 Lardangañe irabasten dau.
 Larra be txarra da gero.
 Larregi eta bapesa bardinek.
 Lastan asko ta maite gitxi, asko gure ta bertan itxi.
 Lau marien pupue ta sortzien trapue.
 Leku onetik librau de.
 Lenago moro.
 Lepoak altzau.
 Leposurie yatzu ori.
 Lotzarri gitxiko gixona.

Lotzabakoantzat mundue, irabasten dauanantzat serue.
 Lotzabakoari lotzabako t'ardi.
 Lurmen bada yoko dau etzera.
 Lurre, sainbet eta bigunago, arra barrurago.
 Lurre yota dabil aspaldien.
 Luse beste sabal dao.
 Mai ondradue apartaute... Ori kaka dok.
 Makina bat bider entzun dau.
 Marabidein lau gixon, aun duketea andrea.
 Mayetza, lenago be otzak il i auen.
 Mendi arteko odaie.
 Mendie artu dau beingobaten.
 Mendiek estauko mendien bearrisenik, gixonak, gixonana bai.
 Mendiek estire alkartuten baie gixonapai.
 Min bako arrana ugerraxan.
 Min utze da ori.
 Miñegas irabasi eta lepoagas pagau.
 Miruek arra letxe.
 Miske bixi de ori propiedadean.
 Miskerie langaisto.
 Mosolloak etze ondoan kantetan, aurie seguru.
 Mugarrietan barruregi sartu de ta.
 Nabo-asi urte. arto urte.
 Nagien urek tenple bi, berogi edo otzegi.
 Naiko dauko surreti sartzean.
 Narrue berotu.
 Narrue yo.
 Narrue kendu.
 Narruten txonteari be ingo ñauskiok.
 Nauk in dot!
 Neska galantak dotea arpegien.
 Neska galantan bentajea, sirriek iteko ona parajea.
 Nire begiek estotzie kalterik in.
 Nogas gure ta exegas.
 Nondikure ta andixik.
 Nor? eta bera.
 Nogas? eta beregas.
 Noina? eta berea.
 Etab. etab... (sistema osoa).
 Nora gure ta araxe.
 Norbere burue erretako egur bille.
 Norberetzako gurestana etxako iñori emoten.
 Norbertzat onik es da, aurrekoari kalte.
 Nordeak iru egun ditu bereak.

Notara be badauko.
 Odolak ur iteko be.
 Odolostea barrizue da.
 Odol-utzitu in de.
 Ogieri yagi bi.
 Okile egarri danean aurie seguru.
 Ona dao ori eskontako.
 Onakaos.
 Onak, txarra dakar (denporea).
 On bille on bille bombille.
 Ondasun bidebakoak, deabruék ekarri ta deabruék eroan.
 Ondo bada eskerrik es eta txarto bada sesana.
 Ondo bearrean in dau.
 Ondo inen pague ate ostaien palue.
 On iteko beste yan dau.
 Onesean agoko ogie, txarresean kontus.
 Oñeskori(k)k (g)ures da saldiskorik etorries.
 Or doa mundurik aramayo.
 Ori be estok erralde andie.
 Ori bixiritao infernuen.
 Ori esta asko urrutuko.
 Ori esta gari garbie.
 Ori estok, gauberdiko astoan arrantzea.
 Ori te esku bete auli egobako.
 Ori txakur sarra da.
 Orpoetan ar barik ibili.
 Orpogorririk es ekarri gero eskonaurretik.
 Orrek iñori txarrik es, baia lagundu bes.
 Orrek lapiko andie barruen.
 Orrek titerea barruen d'arin bete.
 Orren esanagas es urrin yoan.
 Orren esanagas es yoan Bituriera gariten.
 Orren gaxoa ta txakurren koxoa bardin.
 Osasune dauku te.
 Otzoak otzokirik estau yaten.
 Otzoan agoti librau de.
 Parte txarrekoa da.
 Pitxin puntea baltzitude yaukok.
 Plageak arturik ibili.
 Plasa gixona yatzu ori.
 Pobrean umildadea es aukie.
 Porreapuruen yo arte.
 Putz-erroskillea emongoat.
 Saku bateko garie.

Saldaingo txakurrena pasau yako.
 Samaraño nao.
 Samasikue da.
 Santa Barbara, Santa Krus, Jauna balio sakigus, iñosentean ogie, Jaunen
 miserikordie.
 Santiagotan aurie kaballeroa.
 San Yurgi, artoak ereiteko goxegi (apirilaren 23) San Markos, artoak erein-
 de balegos (apirilaren 25).
 Sapoia dauko barruen.
 Sarama bes nire ondoan.
 Sar on in saitiela.
 Sartanak labeari eperbaltz.
 Sartan eperdi suririk ikusi ok ala.
 Sasbako ereitzea ta pobrean eskontzea bardinek.
 Sasien saratea bada seoser ixingo da.
 Sasi ostaire eroan.
 Saspi sutea da.
 Sator yoa ugeri.
 Seinakio dao sarri.
 Seinde...
 Seinekeaoka dabil.
 Selango alango bat.
 Selango baldea alango tresnea.
 Selango musikea alango yantzea.
 Selan gure ta alantxe.
 Semea semean ganean.
 Semendien San Martinek orio sagiek aurretik sein atzetik botaten daus.
 Semendiko idergie da argiena.
 Senar-emasteen asarrea sarri es aukie.
 Sainbet eta bigunago arra barrurago.
 Ser gure ta axe.
 Ser ikusi a ikisi.
 Ser yana faltauko da lenago sesana baño.
 Sie edango lauke.
 Sirkinipes.
 Sorieoneko bearra.
 Soro dao ondiño ori.
 Sorotz iok oin.
 Sorrak kanpaiak ordaintzen daus.
 Sorri-bideak inde dao arpegien.
 Sorri bistue baño txarragorik estao.
 Sorrik onena baño arkienik txarrena obe.
 Soso lumorrastubakoa.
 Sotzalbo be estau in.

Sue ta ure onak, baie belaunpetik.
 Sulatorik sulo dabil.
 Suñe iñon kunako seña.
 Suseraturitabil.
 Susterbakoakas nora yoango sara ba.
 Tardentzea eskatu urlieri.
 Temosoari ekinago ta txarrago.
 Tragauko al das.
 Tripesile gogorturitauko.
 Txakur amesak iten.
 Txakurre ixin balitz, onaskero ausikadea.
 Txakurre(k) putzitan **ibili** de.
 Txakur txiker bat estau baligo.
 Txaramela langoa dauko barritzu orrek.
 Txarrie ilten dan astea ta eskontan dan urtea onenak.
 Txarto esateko geao dao itzueri argi iteko baño.
 Txarto iten dauena, bera apartetan da bidetik.
 Txiteapeste buru estauko.
 Txiterdi esanorduko badator.
 Txitipe estau atera.
 Txorie erramatipotateko moduko beroa iten dau.
 Txorie les dao.
 Txori errea agora etxatok ain fasil.
 Txorixoa burrunztien baño estuago.
 Txotxoka in.
 Txotxoka eltxoari be bai egas doala.
 Txurie goraka lamiñak.
 Uda goieneko loreak inder gitxi.
 Ukondoa ur baie mosurik esin emon.
 Umeak aman magalpe ondoan.
 Umeak Madrilen be ume.
 Umeak saratatzu... bota bea daus denporeak.
 Umean sentzune etzean entzune.
 Umeari kordela luse, edosein gause.
 Ume es asie.
 Ume galdue.
 Ume larrie.
 Umetik, gixona nekes.
 Ume yasoa da ori.
 Untxe te untxe be ingo saunke suk.
 Untze yoa.
 Urdaye katuen atzean.
 Urdaiek, Maietz luseataroas.
 Urdaieri gardamue baie pernileri eltxarra.

Urek emoten yok orko ixikerea.
Urikoa da ori.
Urlie esta gause esetako.
Urlie estok burutik mankuc.
Urliet, begiek itxi orduen, orkoak in dau.
Urliet, bepuruek astun.
Urliet etxaukok askapeko sorginik.
Urlien peseteak sei erreal baligo yosak.
Urliet esan beistike.
Urliet estauko nagiamarrarik.
Urliet etzeikusie in dau.
Urliet txarto dao, lur gorria atera espalei.
Urliet e... mosubelarriangoatxaukosak.
Ur otzeko sopak.
Urrekurtzealango semea.
Urrinean danak aberatzak.
Urrumen andi baritxabik.
Urteripe etxoako.
Uskaiek urten inik.
Yakatzu dabil gaxokarik egones ganera.
Yoskilean etzean erropa sarra kakoan.”